

SORGIN PRATZAKO

Kultur sormen laborategia



ZER DA

Sorgintzaren orratzak zorrozuko ditugu herriko gaztetxoekin, eskualdeko sortzaileak bidelagun ditugula, lau eremutara zabalduko diren sormen tailer hauetan; Hitzak josten, irudiarekin jolasten, soinua orrazten eta gorputzetik sortzen.

Esperimentatu, ikasi, sortu, jolastu eta elkarbanatu!

DINAMIKA

Sormen tailerrak, **Hezkuntza ez arautuan, eskolaz kanpoko ordutegian:**

- Hiru ikastetxeetako **guraso elkarteekin** abiatutako eskaintza herrikoia
- **Bidelagun-sortzaile** batek lagunduta
- Adina: **8-12 urte** (LH3tik LH6ra)
- Tokia: **Dinamoa sormen gunea**
- Iraupena: **Astean ordubete**, lau aste disziplina bakoitzeko.
- Guztira: lau saioko tailerrak dira eta ikasturte osoan zehar zortzi tailer gauzatuko dira (32 saio guztira) lau eremutan banatuta
- Prezioa: **120€ ikasturte osoa** (zortzi hilabete) eta **20€ banakakoa**
- Ordua: **Asteazkenak 17:15etatik 18:30etara**
- Izen-ematea: **Irailaren 17tik 28ra** eta **plazak mugatuak** izango dira
<https://forms.gle/DqtYZG7CgHn4wVYw6>



HELBURU OROKORRAK

- Azpeitiko ikasleei kultur sormenera gerturatzeko aukera luzatzea.
- Ikasleengan modu desberdinean eragiteko bitartekoak eskaintzea.
- Ikastetxeetan eskaintzen zaiena osatzea eta aberastea.
- Balio eta balore hezitzaileak dituen kultura eraldatzailea sustatzea.
- Ikasle kulturazaleak, parte hartzaileak, kritikoak eta sortzaileak hezteak.

ZEHARKAKO HELBURUAK

- Kultura gazteengana gerturatu
- Kultur espazioak ezagutu
- Herriko kultur sortzaileak eta taldeak ezagutu
- Herriko gazteen interes eta erreferentzia kulturalak zeintzuk diren jakin

2025-2026 EGUTEGIA

GORPUTZA

MAGIA: Urriaren 1etik urriaren 22ra

ZIRKUA: Urriaren 29tik azaroaren 19ra

SOINUA

IZAN DJ: Azaroaren 26tik abenduaren 17ra

SOINU-PAISAIK: Urtarrilaren 7tik urtarrilaren 28ra

HITZA

IPUINAK: Otsailaren 4tik martxoaren 4ra

BERTSOA JOLAS: Martxoaren 11tik apirilaren 15era

IRUDIA

ARGAZKI LABORATEGIA: Apirilaren 22tik maiatzaren 13ra

ARTE PLASTIKOAK: Maiatzaren 20tik ekainaren 10era

LEHENENGO TAILERRAK

Gorputzaren eremuko tailerrekin hasiko da ikasturtea, **Iago Azkue** (Iagomago) eta **Ekain Ibarguren** (Ekaintxo pailazoa) izango ditugu bidelagun magiari eta zirkuari eskeinutako saioetan hurrenez hurren.




Datozen eremuetako sortzaile-bidelagunak lotzen diren heinean jakinaraziko dira tailerra baino hamabost egun lehenago.



Egutegi hau behin-behinekoa da eta aldaketak egon daitezke ikasturtea aurrera doan bitartean.

DINAMOA

Dinamoa sormen gunea eremuka banatzen den espazio bat da (Hitza, irudia, gorputza eta soinua) eta Kulturaz Azpeitiko kultur kooperatibak kudeatzen du gaur egun.



Azpeitiko kultur dinamika oparoaren babesean **Kulturaz Kultur Kooperatibak mediazio eta sentsibilizazio esperientziak** eskaintzen jarraitu nahi du. Kultur sormen praktikekin gure gazteengana iritsi nahi dugu zuen ikastetxeetan eskeintzen zaien hezkuntza eskaintza osatu eta aberasteko. Zentzumenen gozagarri izateaz gain kulturak baditu beste hainbat balio, balore eta medio. Badu zentzu kritikoa lantzeko gaitasuna, eztabaidagaiak beste modu batetan lantzeko giltza, gizarteko problemaketara gerturatzeko ahalmena. Bada, kultur edukiak eta eskualdeko sortzaileak herriko gaztetxoekin harremanetan jartzen ditugu, batera esperientzia aberasgarri anitzak sortzeko.

Sorginorratzak proiektua beren beregi sortu dugu sormen eskaintza guzti hau modu antolatuan Lehen Hezkuntzako ikasleei eskuragarri jartzeko.